Eraikin multzoan garai desberdinetako pizak erraz identifika daitezke, horietako bakoitzean programako gune berezi bat kokatuko da, azalera eta formagatik bakoitzari hobe datorkiona. Komunikazio nukleo bakoitzak multzo horietako bi zerbitzatuko ditu. Frikzio puntu programatikoa bilakatuko da, hala horien inguruan zerikusia duten programa tipologiak nahastu daitezken.




## zeharkagarritasuna

Inguratzen duten lau kaleetatik irisgarria bihurtu, auzoko gune desberdinetatik bisitari fluxuei sarrera erraztuz. Zeharkagarritasunak, gainera, patioen garrantzia indartuko du.



## eraikin heterogeneoa homogeneizatu

XIV. mendetik gaur egunera arte aldaketak jasaten joan den eraikin multzoaren unifikazioa bilatuko da. Eraikina eta erabiliko duen jendearen arteko paralelismo poetiko baten antzera: desberdinak batera elkar bizitzeko espazio bat sortuko da.



## klaustroaren moldaketa

Patio zentrala antolatuko duen piezaren kopakena erabakitzeke orduan posizio zentral batek baino aldamenetara botatzeak aberasgarritasun handiagoa eskeintzen duela ausnartzen da. 5mko krujiaren handipenak baloratuko dira zein bigarren mailako patioen sorrera. Pieza berriak egoera berriak sortu beharko ditu, guztiari osotasuna eta koherentzia emateaz gain.

# programa

## *komunikazio bertikal nukleoak:*

- a Alokairu sozialeko etxebizitza + ikasle egoitza
- b Ikasle egoitza. Larrialdietarako eskailerak.
- c Ikasle egoitza. Eskailera nagusiak.
- d Ikasle egoitza + zentru zibikoa (tailerrak)
- e Zentru zibikoa (lantokiak)

## *funtzioak:*

### **SARRERAK**

- 1 Hall /via Taddea 108m<sup>2</sup>
- 2 Ardatz nagusiako sarrera /via Guelfa
- 3 Bigarren mailako sarrera /via Panicale
- 4 Parking sarrera
- 5 Bigarren mailako sarrera /via Sant'Orsola

### **AUZETXEA, spazio sociale**

#### *liburutegia:*

- 6 Hemeroteca + Mediateka + Irakurketa txokoak 310m<sup>2</sup>
- 7 proiektzio gela 40m<sup>2</sup>
- 8 Ikasgelak 190m<sup>2</sup>

#### *zentru zibikoa:*

- 9 Areto multifuntzionala 160m<sup>2</sup>
- 10 Partehartze prozesuko egoitza 75m<sup>2</sup>
- 11 Mona Lisari eskeinitako museo arkeologikoa 480m<sup>2</sup>
- 12 Aire libreko erakusketa 98m<sup>2</sup>
- 13 Hitzaldi aretoa 60m<sup>2</sup>
- 14 Solairu pasiboa: ikasgela anitzak, agora... 480m<sup>2</sup>
- 15 Solairu aktiboa: sormen lantegia 480m<sup>2</sup>
- 16 Gorputz adierazpen aretoa 95m<sup>2</sup>
- 17 Aisialdi gunea 75m<sup>2</sup>


- 18 Taberna + Jangela 207m<sup>2</sup>
- 19 Sukaldea + Sukaldaritza eskolako gela 88m<sup>2</sup>
- 20 Terraza 220m<sup>2</sup>
- 21 Haurtzaindegi + ludoteka 175m<sup>2</sup>
- 22 Administaritza 38m<sup>2</sup>
- 23 Atezaintza + informazio gunea 18m<sup>2</sup>
- 24 Bizikleta gela + Konponketa tailerra 93m<sup>2</sup>

### **ETXEBIZITZA KOOPERATIBA /tipologia anitz**

- 25 Etxebizitza soziala 500m<sup>2</sup> x3
- 26 Zaharren egoitza 320m<sup>2</sup> x3
- 27 Ikasle egoitza 1290m<sup>2</sup> x2 + 670m<sup>2</sup>
- 28 Baratze komunak 60m<sup>2</sup>


### **azalerak**

- behe oina 3820m<sup>2</sup> + patioak 1800m<sup>2</sup>
- lehen oina 3485m<sup>2</sup>
- bigarren oina 3485m<sup>2</sup>+ altuera bikoitza 1170m<sup>2</sup>
- totala 13.760m<sup>2</sup>**





## faseak



### 1

#### aldarrikapena

*Bisualizazioa: balioan jartzea.*

Azken urteetan zehar iada lehen pausua eman da *sto'aperta* bezalako ekintzei esker. Biztanleek espazioa ezagutu eta hontaz zuten interesa piztea zuen helburua jarduerak nondik **Obiettivo Sant'Orsola** izeneko kolektiboa sortu zen, partehartze prozesu publiko gisa lan egingo duena ordundik gaun egunera arte.

### 2

#### erakarpena

*Akzioa: arkitektura.*

**Gestioa:** Erakundeen antolakuntza + kumunitate sarea osatzea.

Auzotarrak erakarri eta zerbitzatuko dituen espazio publikoen materializazioa. Behe oinaren berregituratze, birgaitze eta martxan jartzearen ondorioz espazioaren potentzial errearen demonstrazioa. Hiri sareko espazio publikoen artean lekua hartuko du.

Dimentsio eta garrantzia honetako erakina izanik, *Città metropolitana di Firenze* eta erakunde pribatuaren inbertsio eta laguntzaz ezinbestekoak dira. Horrez gain, eraikinaren etorkizuneko gestioa antolatzeke eragile desberdinen sarea sortu beharko da. Biztanle zein erakundeez osatuko da, **Obiettivo Sant'Orsolako** partehartze prozesuan hasitako lanarekin aurrera segitzeko era kolektiboan.

Hauek dira gaur egun auzoan bai esparru sozial, urbanistiko, kultural zein politikoan lan egiten ari diren kolektibo eta erakunde publikoetako batzuk:



### 3

#### bereganatzea

Behin behe oina konkistaturik, goi solarrietako "polsa" hutsak inbaditzeari ekingo zaio. Ez dira zertan aldi berean eraiki, azpi faseak ere egon daitezke bertan. Bereganatzeko fasean garrantzitsua eraikin publikoa eraikitzea izango da: **auzetxea**.

Gizartea espazioan integratzea bilatuko da, espazioaren parte sentitzea eta hau bereganatzea. Bizilagunek Sant'Orsolara jo dezaketela sentitzeko lan egingo da auzotarrengandik eta auzotarrentzat zentro zibikoa sortuz: parte hartzerako espazio bat non auzoko komunitatea ahaldundutzea bultzatuko den (*empoderamiento comunitario*)\*

\* ikusi **paisajetransversal: auzoetxe** marko kontzeptuala

"Entendemos **empoderamiento** como el proceso por el cual una persona o una comunidad adquieren una mayor capacidad de acción sobre su entorno, apoyada en la mayor autonomía que da el conocimiento y el acceso a las herramientas necesarias para ello. Puede entenderse en distintos aspectos de la humanidad como lo político, lo técnico, lo económico o lo cultural".

ecosistema urbano

### 4

#### bizitza

Kontextuaren azterketaren ondorioz eta beti ere gentrifikazioaren arazotik urrundu nahian, Sant'Orsolako konplexuan helburuak beteko lituzkeen etxebizitza eredu **kooperatiba** eran antolatutakoa izan zitekeela ondorioztatu da.

Auzoko behar desberdinei erantzuteko tipologia anitzak behar dira. Arazoak alde batetik, ikasle gazteen kopurua eta hirian ikasle-egoitzen gabezia dira; bestetik, gentrifikazio prozesuek sarritan zahar eta klase sozial baxuko bizilagunak baztertu ohi dituztela. Adin eta klase sozial guztiak eman nahi izango zaie lekua. Garrantzitsua izango da bertakoen integrazioa eredu espekulatioetatik urrutitzeko.

\* eredu **laCol: La Borda** vivienda cooperativa

**“El fin de la arquitectura debería ser siempre mezclar a la gente, hacer ciudadanos mas libres y desde luego, no contribuir a la segregación”**

"Como arquitectos creemos en la suma, en la integración, en las capas. Nunca demoler, siempre añadir"

**anne lacaton**

ARKI  
TEK  
TURA



## 2faseaerakarpena

Sant'Orsolako eraikin multzoan emango diren lehendabiziko esku hartzeek espazioa elementu urbano batean bilakatzea izango dute helburu. Hala, lehen akzioekin eraikina hirira irekiko da eta patioa kalearen luzapena bezala ulertuko da, lau kaleetako fluxuak onartzen dituelarik.

Gaur egun konbentua inguratzen duten kaleek ez dute oinezkoa gerturatzerara gonbidatzen. Horregaitik, Via Taddeako metro erdiko espaloia handitu da, oinezkoari espazioa emanez eta via Sant'Orsola guztiz peatonalizatu da, bertan akzesua duen garaje pribatuari sarrera ahalbidetuko bazaio ere.


Fase honetan antolaketa orokor bat proposatuko da, behe oinplantako banaketa eta eskuhartzea garatuko da, proposatutako eraldaketek konbentuaren pieza desberdin askoren lotura eta antolaketa baimendu nahi dutelarik. Tipologia eraldaketa landuko da, klaustro nagusienean emango den interbentzioaren bidez. Gorputz berri bat erantsiz, ohiko tipologiaren desitxuratzeari lotuko da. Forma, eraikuntza eta materialitate desberdin batek klaustroaren espazio inguratzailea programa desberdinez betetzen du, batzuetan espazio gehigarriak ahalbidetuz, bestetan kanpo espazio berri bat eskainiz.

Patioko pieza semi zirkular berriak nexu funtzioa izatea du helburu. Erabilera desberdinak inguratu eta batu nahi ditu, bolumen berria erabilera posible guztiak sakanatzen dituen espirala bailitza. Tipologia dela eta barrurantz begiratzen duen eraikin batean ari garela lanean gogoratzea garrantzitsua da eta proiektu berriak behin bisitaria patioan dagoela eraikina barrutik bizitzera bultzatu nahi ditu.

## esku-hartzeak

### 1. interbentzio nagusia. txertaketa.

Ohiko klaustroen berrinterpretazioa. Klaustroa bikoitzu egiten da hizkuntza berri bat duen bolumen baten txertaketa bidez. Pieza berriak, eraikin multzoaren artikulazioa bilatzeaz gain, patioari aberastasun programatikoa eman nahi dio. Horma bakoitzari era desberdin batean erantzuten dio, gehiketak ebaketa transformazten duelarik. Lehen solairuan, aldi berean, ikasle egoitzako gelen harteko interkonexioa lortzen da. Bistaria inguratu, biltzen du, espazioaren parte dela sentiaraziz.




### 5. gain-interbentzioa.

Patio txikiena bada ere, erabilera handia izango du, administratza eta gestio bulegoetako sarrera baita. Honen erabilera optimizatu nahi izan da eta patioa estaliz espazio semi-ireki bat lortuko da, zeina egoera klimatiko guztietan erabili ahal izango den.




### 2. interbentzio-apala.

"Cortile piccolo" programaren barne antolatetarako patio garrantzitsua da eta aurrerago emango diren faseak eragin handia izan dezakete bertan. Horregatik, behin-behinerako birgaitze soila egingo da patio honetan: zaharberitze osom erabilikako hizkuntza berberaz arrotzerien aldaketa, gainazaleko estaldura eta luraren moldaketa egingo dira. Hormetan aurkiten zen landaredia mantendu eta bermatzeko azpiegitura ere jarriko da.





### 3. behe-interbentzioa.

Landaredia balioan jartzeko helburuz, esku-hartze minimoa egin da. Klaustroko gangak eta hormak birgaitu dira inguruko galeriak aire libreko gune atseginak bilakatzeko. Belardian, ordea, begetazioaren gainetik egurrezko pasarela bat proposatu da, espazioa erabili ahal izateko landaredia errespetatuz.



### 4. interbentzio bertikala

Patioaren humanizazioa landaredia bidez. Pasusko argizuloa izanik, aparkalekurako aldapaz eta altzairuzko egituraz inguratua, interbentzio honen eskala domestikora gerturatzeko da. Aldi berean goi solairuetako etxebizitza sozialen espazio komunak ere egokitzeko eta konektatzeko dituelarik.





## gainerako esku-hartze bateratzaileak


1. Azalera bertikalak homogeneizatu, estuko talotxatu bidez.
2. Leiho eta ate hutsarteci premarko berbera ezarri, zur zein altzairuzkoa, kasuak kasu.
3. Ondare arkitektonikoaren birgaitzea. Behararren arabera, azaleko finkapena ala egiturarena.
4. Behe oineko azalera horizontalen hierarkizazioa, gris tonu desberdinetako hormigoituz.
5. Leiho tarteetan hormatzea zein irekiera, beharrezkoa den kasuetan.
6. Irigarritasun hobekuntzak, atetako 30 zmk saltoak soladuraren maldaz zein egurrezko eranskinekin.
7. Komunikazio nukleoen bisualizazioa, OSB egurrezko akaberaz.
8. Guneen seinalezapena, binilo beltzean mozturiko tipografia uniformeaz.
9. TEXTURIZAZIOA: hormigoia / zur argia / osb egurra / altzairu beltza / landaredia
















keta




















## 3 faseabereganatzea **auzetxea** spazio sociale


Sant'Orsola konplexuko "centro sociale" edo auzetxea (4850 m<sup>2</sup>) auzoko biztanle guztiek eskuragarri izan dezaketen espazio bezala sortzen da. Hiriak, indar guztiak turismoan kontzentraturik, alde batera utzi dituen biztanleei bere senti dezaketen gune bat eskeintzeko. Baliabideak ez dituztenei aukerak eman eta desberdinen arteko dinamikek sortu dezaketen energia jasotzeko.

Eraikinean aukitzen den hondare arkeologikoa espazio finko batean (museoa) balioan jarri bada ere, gainontzeko gune guztiak indeterminazio puntu batez diseinatu nahi izan dira. Kudeatu edota antolatuko duen erakundeak (parte-hartze prozesuko kideek) zein erabiltzaileek azpiegitura hori askatasunez eta beharren arabera erabil dezaten. Ariketa honetan programa "tipo" bat finkatu da, onar dezakeenaren adibide gisa.

Diseinatzeko irizpide gisa eta interbentzio bateratu baten alde, aurretik patioa pasarelan-elementuan erabilitako egurrezko egitura portikatuaren kontzeptua berrerabili da. Birgaitze bat denez, eraikinaren perimetroa definiturik dago iada. Interbentzioa barne banaketa arrunt bat izetik urruntzeko, banaketa elementu hori proiektuaren funtsean bilakatzea erabaki da. Espazioak banatzeaz gain, altzari, leiho... bihurtuko dira eta material-forma konbinazioei esker espazio horiek izaera anitzak izango dituzte.

Bakar egindako eraikin multzo bat izateak irregulartasun ugari sortzen ditu, bolumenen arteko kota desberdintasunak kasu. Komunikazio nukleoaren eraispen eta birplanteamentuak kota salto horiei erantzuna eman zaie, nukleo berriak inguruan artikulatzen dituen espazioak antolatzen lagundu duen bitartean.


Nahiz eta auzetxea elementu independente gisa garatu den, ezin daiteke ahaztu konplexu handiago baten parte dela, osotasun baten funtzionatzen duena. Kasu batzuetan, komunikazio nukleo bakar bat erabilera desberdina duten bi espazioek konpartitzen dute. Konplexutasuna biak zerbitzatuko dituen elementu bakar bat diseinatzean dago, kasu honetan, auzetxea eta ikasle egoitza lotzen dituen pieza.








# estrategiak




**sabaia**

Eraikinaren behar nagusia estalkia eta beraz, sabaia eraikitzea izango da lehentasuna. Sabaia eraikitzeak bideratuko du gainontzeko solairuetan egingo diren interbentzioak. Bi uretarako sabaia berrinterpretazio bat proposatuko da non erpina heren bat alderatuko den sabaiean sortuko duen espazioari berezitasuna emateko.




**hormak**

Hutsik dagoen zatian hormak mantenduz barne solairuak eraikiko dira. Lehen ideia eraikin autoportantea eraikitzea bazen ere, horma sendoak ditu eraikinak, kargak jasateko gai izango direnak. Espazio berri oro zuraz eraikiko da eta hala elementu berriak eta historikoak begi bistaz identifikagarriak izango dira.




**ezkutuan**

Gailurra heren bat alderteak hormen altuerari egokitzen laguntzen du, baita sabaia kanpotik guztiz ezkututzen. Horrela Sant'Orsolaren kanpo irudia ez da desitxuratuko, imaginario kolektiboan duen irudia mantenduko delarik. Udal ordenantza hain mugatzaileak betetzea ere errazago izango da, sarrerako elementu berrian bakarrik aldatuko baita akabera materiala.




**ardatzak**

Atikoko zertxen modulazioa behe solairuetan islatuko da, goi solairuan egingo den banaketa behe solairuetan ere mantenduko delarik. Espazioak ardatz berdinekin antolatuko dira, baina betea eta hutsarekin jokatuko da elementu berdinarekin tipologia desberdineko guneak sortzeko.



**modulazioa**

Zertxen modulazioaren proiektzio horizontal berak banaketa elementuak konposatuko ditu. Tabike arruntak erabili beharrean egur lamen eta panelen bidez osatuko dira, 0'9mro dauden bertikalen artean apalak eta beste zenbait elementu integratuko direlarik.



**espazioak**


Espazio jarraiak proiektatu dira non banaketak egiteko *barne eta kanpo* kontzeptuekin jolastuko da. Sistema bereberaren konbinazioaz espazio oso desberdinak osatuko dira. Sekzioan "etxetxo"aren ohiko irudiak espazio printzipala osatuko du, batzuetan kanpo espazio izango dena, besteetan espazio itxia. Beste herena espazio zerbitzaria izango da, korridorea edo gela erantsiak adibidez, baina ez horregaitik garrantzia gutxiagokoak. Nahiz eta barne-banaketak egon, zura material desberdin eta identifikagarria denez espazio jarraia ideia indartzen du.












DESKRIBAPEN  
**TEKNIKOA**





## P'gunearen definizioa

Garapen teknikoko atal honetan proiektu osoaren eremu bat hartu da teknikoki xehetzeko, **P gune** gisa izendatua izan da eta auzetxearekin bat etorriko litzateke. Gune horretako definizio teknikoa egingo da jarraian, *eraikuntza, egitura* zein *atondurei* dagokionez.

Atonduren atala garatzeko, gainera, azpi mugaketa bat egin behar izan da, hemendik aurrera **P'** izango dena. Hau eraikinaren espazio batzuk P gunearen baitan kokatzen diren arren ez direlako *Auzetxearen* parte gertatzen da, *Egoitzaren* parte baizik.

Honenbestez, errealitatean, eraikin-komplexu osoaren kalkulua egitean arazorik egongo ez litzatekeen arren, ariketa honen gauzatzera **P'** gunearen sorrera ezinbestekoa suertatu zaigu.

## eraikuntza deskribapena

Birgaitze lan honetan eskuhartzeko modua erabakitzerako orduan ahalik eta inpaktu txikiena eragitea izan da lehen helburua. Jatorrizko eraikina ahalik eta gutxiena ukitzeaz gain txertatuko den materialak ere errespetuzko jarrera izatea bilatu da. "Zirujia" interbentzioa eskala guztietan eman nahi izan da, bai auzo mailan, eraikinaren konfigurazio bolumentrikoan eta baita eraikuntza sisteman ere.

Premisa guzti horiek beteko dituen materiala zura dela ondorioztatu da, laminatua baina batez ere kontralaminatua: material berritzailea, teknologikoa, industrializazioari esker zehatza eta azkarra, ingurugiroarekiko inpaktu gutxikoa...

Eraikuntza teknika zahar eta berrien arteko elkarbizitza posible dela lantzeko ariketa bezala planteatu da, etorkizuneko arkitekturan birgaitze alorrean dagoen egoera oparoaren gogoeta gisa.

Bi multzoetan bana daitezke eraikinean emango diren interbentzioak:

### \*zaharberritea

**ZAHARBERRITZE ARINA, mantentze lanak:**  
Gangen segurtasuna, estatikaren frogapen eta finkapena.  
Harri/igeltsu/fresko/elementu metalikoen birgaitzea.

> elementu historikoetan: eliza ohia.  
jangelak ohia (eliza)  
via Guelfako fatxadan  
klaustroan

**ZAHARBERRITZE SAKONA:**  
Plangintzatik kanpo geratutako zatien eraispena.  
Hutsarteak ireki (dintelatu) edo itxi (tapiatu).  
Espazioen inguratzailak isolatu.  
Akabera uniformizatu: zorueta mortero  
autonibelante leundua, hormetan erreboko gris talotxatua.

### \*obra berria

#### zimendua

Bolumentria berriak lurraekin kontaktua gune oso puntualetan badu ere, gutxi horietan egituraren abiatzea hormigoizko azaleko zapataz egingo da. 0'5zentimetroko altueran parapetoaren amaiera eta egurrezko egituraren hasiera emango da. Egoin® fabrikak produktuaren katalogoan aholkatzen duen lotura sistemarekin gauzatu da, altzairuzko pletina eta torloju bidez, alegia (detaleetan zehaztuko da).

#### zorua

Behe oineko forjatua lurra altsatzen den guneetan (sarrerako bolumenta) eta patio zentralako bolumen erantsian Cavity Cupolex® iglu bidez eraikiko da. Lehendabizikoa maldan eraiki behar denez 100mm eta 400mm bitarteko igluak erabiliko dira hormigoia aurrezteko helburuaz.

Eraikin barruan, ordea, aurrez forjatua existitzen denez honi isolamendua eta mortero autonibelanteko geruza gehituko zaio azalera berdintzeko.

Patioan legarra ezarriko da, aglomerante baten bidez finkatua. Urak ULMA® enpresaren drenai kanalez aterako dira, aurreexistenzien ondorioz altuera gutxi hartu dezakeenez mini sistemako m-150 modeloa erabiliko da.



#### egitura

Egituraren konfigurazioa osatzeko zuraren bi bariante erabili dira: zur laminatua (GL28h) eta zur kontralaminatua. Azken hauek etxe ugariak izan daitezke baina proiektuan EGOIN® etxeak erabiltzea erabaki da. Katalogoan aholkatutako eraikuntza sistema ibiliko da kasu guztietan.

Egurrezko elementu berriaren eta manposteriako eraikin zahararen arteko lotura elementu metalikoen bidez emango da. Pletina metalikoaren anklaiak ziurtatzeko horman hormigoizko batatzea egingo da, harria heterogeneoa denez kargak era homogeneoan banatuko direla bermatzeko. Anklaiak ainguraketa buloiez egingo da, perno horietara pletina soldatuko delarik. Altzairuzko pletina egurraren muturrean egindako ebakiduran kokatuko da, torloju bidez finkatuz.

Argia txikiagoa duten espazioetan eta, beraz, CLT panela forjatu gisa haberi gabe kokatuko denetan, zuzenean panelen lotura batatze linealari anklaturako mentsulen gainean egingo da, 15 zm horman semi-enpotaturik.

Ahal den neurrian egitura bistan lagako da.

#### forjatua

Bi forjatu tipo identifikatu dira: Kanpoaldearekin kontaktua dutenak eta eraikinaren barnealdean geratzen direnak. Isolamendu eskaerak beteko direla bermatzeko eta kantua murrizteko EGO\_CLT\_MIX panelak erabiliko dira kanpoaldearekin kontaktua duten forjatuetan. EGO\_CLT\_MIX\_300 etik beherako panelak izango dira eta materialaren optimizaziorako tokian tokiko kalkulua eginaz ajustatuko dira.

Barnealdeko forjatuek EGO\_CLT\_230koak izango dira habeen gainean doazenean, apur bat handiagoak bestelako kasuetan (hauetan ere kalkulu zehatza egingo da kasu bakoitzerako).

Pinu Radiata (insignis)koak eskatuko dira, ikusian lagatzeko kalitatezkoak. Izan ere forjatu azpia beti utziko da bistan, oinekin kontaktua izango duen azalera isolatu eta mortero autonibelantez esaliko den bitartean.

Eskailerak ere Egoin fabrikaren zuraz eraikiko dira.

#### karga hormak

EGO\_CLT arruntek ezaugarri mekaniko hobeak elementu bertikalak eraikitzeko. Kargak banatuko dituzten hormak hauen bidez eraikiko ditugu. Proiektuan gutxi badira ere funtzio desberdinetakoak izango dira, guztiak portante: barne banaketa, igogailuaren kutxa, fatxada zein medianera. Bakoitza bere eskakizunei erantzuteko dimentsionatuko da.


#### tabikeak

Portante ez diren tabikeak 0,9m-ro paralelo jarriko diren egurrezko lama batzuetan sostengaturik joango dira. EGO\_CLT\_MIX a ez dutenez 100mmko dimentsioa fabrikatzen, sandwich panel bidez egingo dira, kontratxapatu fenolikoko akabera izango du, erdian arroka-ile isolamendua eta egiturazko kapa aglomeratu hidrofugoa edo OSB.

Tabikeek argi sarrerak izango dituzte, batzuetan Cortizo® etxearen leihateekin itxiko dira, besteetan altzairuz-ko markodun polikarbonatoz.







### fatxadak eta estalkia

Hiru fatxada desberdin dira identifikagarriak proiektuan:

sarrerako aluminiozko fatxada aireztatu arina:

Banaketa bertikal ez portantea denez EGO\_CLT\_MIX tipologiako panelak erabili ditzakegu, 240koa, bistan. Kanpoko orrian arroka-ilez isolatuko dugu, Tyvek® lamina iragazkaitz transpirableaz babestu eta akabera aluminio ondulatuzko xaflak zintzilikatuko dira azpiegitura metaliko bati esker. Xafla hauek tarteka moztuko dira, lerro horizontalak markatuko dituztelarik. Tarte bakoitzean xaflen geometria ez da guztiz bertikalki alineatuko, horizontaltasun hori markatzeko. Trantsizioa luzera osoan horizontalki ura kanporatuko duen altzairuzko perfilez egingo da.

Estalkia eta fatxada jarriak izango dira eraikinaren pieza honetan eta diseinuan kanalo metalikoa integratuko da. Zurezko leihoak 20zm kanporatuko den altzairuzko markoa izango dute.



patioko interbentzioko fatxada: zura eta sate.

Patioko fatxada portantea da eta eutsi behar duen argia txikia bada ere altuera handia hartzen du. Horma hori EGO\_CLT\_150 bidez eraikiko da eta pandeoa ekidin eta zurruntasuna erantsiko duten 100x300mmko zurezko perfilak ezarriko zaizkio kanpoaldetik, paraleloan 1mro.

Tyvek laminaz babestuko da egitura, hezetasunak ezin baitu inoiz kontaktua izan zurezko panelekin.

Perfil artean, kanpoko orrian, egur fibrazko isolamendua jarriko zaio, "raketa" tipoko takoez loturik, 140mmkoa (GUTEX® thermoflex). Obraren isolatzailearen gehiengoa egurrezko fibrarekin egitea erabaki da, isolatzaile termiko eta akustiko paregabea izateaz gain oso egonkorra baita lurrunaren barreiapenaren aurrean, kapazitate termiko altua du, kokatzeko errazak dira (birgaitzean ere) eta jasagarri zein birziklagarriak dira.


Akabera rebokatu egingo da, GUTEX® enpresak berak eskeintzen duen SATE sistema erabiliaz, eta egurrezko lamak gailenduko direlarik.



Manposteriako horma existente rebokatuak (gainontzezkoak).

Bertan behera geratutako obraren ondorioz eraikinak duen kanpoko azalera traketsa uniformizatuko da reboko gris argi talotxatu batez, akabera ez da guztiz leunduko, talotxaren markak utziko dira agerian hormak textura izan dezan (estuko Veneziarraren erara).

Barrutik fatxada hori pladurrez isolatuko da kondentsazioei aurre egiteko eta akaberen ere mortero monokapa batez textura berbera emango zaio. Hala, obra guztian elementu zaharrak gris texturizatu gisa eta berriak egurren texturaz identifikatu ahal izango dira. Patioko leihoetan Florentziako egurrezko leiho-ate tipikoak jarriko dira.



### estalkiak

Estalki guztiak sistema berberaz eraikiko dira, hau da, aluminiozko estalki arin gisa. Eraikuntza sistema aluminiozko fatxadan erabilitakoaren berbera izango da, isurialdeak bi uretara izango dituelarik. Gailurra eta kanaloia altzairu herdoilgaitzezkoak izango dira.

### sabai faltsua eta instalazioak

Ez da sabai faltsurik jarriko patioko sarreran eta komunetan izan ezik (altura handiegia bait dute). Instalazio hodi, kable eta elementuak bistan eramango dira.

Egoin fabrikako panelek R60 arteko suarekiko erresistentzia dute, gero pladurra erantsiz lortuko da handitzea balioa.

## egituraren deskribapena


### egituraren diseinua

Proiektua eskala handikoa bada ere, esku-hartzeko erak oso eskala txikia du, lekuan lekukoa, aurre existentziak kontuan hartuz eta errespetatuz. Beraz, egituraren diseinuak eta kalkuluak garrantzia handia hartu du proiektatzean erabakiak hartzeko orduan. Ideologikoki interbentzioa osatzeko era, elementuak txertatzeko, oso artisaua dela esan daiteke eta zurarekin eraikitzeak hori ahalbidetzen du baita kontruktiboki ere.

Egiturari dagokionez hiru interbentzio mota aurkitzen dira: sabaia soilik berreraikitzea behar duten bolumenak eta sabai zein forjatua dituztenak, hauen barruan habe + clt panel bidez ebazten direnak eta hormak zein forjatua clt panel bidez eraikitzen direnak.

### forjatua

Aurre existentziako forjatuen kotarekin alineatuko dira akabera jarraia izan dezaten. Sabai faltxua daraman edo ez kalkuluaren arabera izango da, zenbat habe eta zein dimentsiokoak diren baloratzean erabakiko da, altuerak behintzat aukera ematen du.



**eskailerak eta igogailu kutzak** ere clt bidez egingo eraikuntza teknika guztien bateratzearen alde.

### sabaia

Bi uretako sabai arina eraikiko da, gailurra L/3n izango du eta gailurraren bi aldeetara malda berdinarekin jeitsiko da, hala, mutur bat bestea baino beherago geratuko da. Gainera, fatxadaren gailurretik ez da gailenduko, apur bat ondoratzen da hormak gainkaldean peto moduko bat sortzen duelarik. Azalera trapezoidala duen espazioan (tailerretan) sabaiko zertxa bakoitza desberdina izango da eta gailur erroak malda txiki bat izango du. Hurrela bi isurialdeek malda berbera izango dute eta beheko ertzak lerro horizontalak izango dira.

## egituraren materiala

### zur laminatuzko egitura

Eraikin historikoan esku hartzean, estrategia nagusi bezala interbentzio berri oro begi bistaz identifikagarri izatea erabaki da. Harriari eta morteroaren textura gogorari egurraren epeltasuna kontrajarri zaio. Zuraren ezaugarri ekologikoez gain, material paregabea da forma eta bolumen irregularrei erantzun eta argi eta erresistentzia handiak izateko.

Egur laminatuzko habeak erabiliko dira bai forjatuan baita sabaiko zertxetan ere. Hauek manposteriako horman artikulaturik joango dira altzairuzko pletina-torloju sistema baten bidez.

### egoin© panelak

Egoin enpresaren zurezko panel kontralaminatuak erabiliko dira azpi egitura moduan, habexkak ordezkatzuz. Eraikuntza material berritzaile eta jasagarria izateaz gain, oso teknologikoa eta efizientea da, aurrefabrikaturik ekartzen denez obran leorren muntatzen baita.


Panelak bi eratan erabiliko dira, tailerren gunean argi handiak estali behar direnez, habeen gainean habexkak ordezkatzeko erabiliko dira panelak. Eraiki behar diren beste guneetan, argiak txikiagoak direnez, forjatu-horma sistemaz eraikiko da. EGO CTL panelez egingo da guztia eta eskakizunen arabera dimentsionatuko da pieza bakoitza, enpresak berak emandako katalogoen bitartez.

### sandwich panelak

Bai fatxada zein aluminiozko sabai arinean zur kontraxapatuzko akabera eta konglomeratuzko azpiegitura duten sandwich panelak erabiliko dira. Honek egiturarik zurruntasuna emango dio, bigarren mailako portikoen norabidean mugimendurik ez dagoela hipotetizatuko dugu horrela.

### zimenduak

Egitura berriaren gehiengoak aurretik dauden hormen gainean deskargatuko du bere karga eta beraz, aurretik dauden zimenduak frogatu beharko liriteke karga handipena ere jasango dutela ziurtatzeko. Bestalde, lurrarekin kontaktua duten elementuentzat, guztiz berrituko diren piezenak batez ere, hormigoizko azaleko zimenduak eraiki beharko dira. Zimendu hauek soleratik 0,5mko kotan amaituko dira eta zurezko egiturari arranke moduan lan egingo dute, zokalo moduko bat osatuko dutelarik.





## atonduren deskribapena

### suteen kontrako babes

Birgaitze batean normatibako arlo batzuk betetzeko orduan obra berriko eraikin batean aplikatzea baino konplexuagoa izan daitekeen arren, indarrean dagoen CTE DB SI araudia betetzeko erabakiak hartu dira.

Eraikinaren tipologiari dagokionez, eraikin-komplexu osoa elkargune publikoa (publica concurrencia) bada ere, aztergai den P gunearen programa (eraikin kulturala izan zitekeen arren) irakaskuntza-erabileradun eraikin baten programarekin alderatu dezakegu. P' gunea hiru solairuz osatzen da (S+B+2) eta ebakuazio altuera 9'6mkoa du. Salbuespen gisa antzoki gaineko solairua dugu, zeina 1,25m altxaturik dagoen 3. solairuarekiko, honen ebakuazio altuera 10,75m izanik. Sotoak 3'5mko altuera du.

### sektorizatzea

P' gunea bere azalera erabilgarria (3520m<sup>2</sup> < 4000m<sup>2</sup>) eta erabileraren eskakizunen ondorioz sektore bakar batean jarri ahal izan dugu. Sotoak, aldiz, beste bigarren sektore bat osatuko luke.

### larrialdi irteerak

Jatorrizko eraikinak bi eskailera zituen P' gunean. Hauen dimentsioak eta geometriak, ordea, ez ziren mesedegarri ez proiektuarentzat ezta suteen aurrean pertsonen ebakuazio egoki batentzat. Diseinuaren estrategia bi eskailera nukleoko berregituratzea izan da, eraikinaren input eta beharrei era egokian erantzuteko.

Irakaskuntza erabilera eta 14m baino gutxiagoko ebakuazio altuera duenez, bi ebakuazio eskailera ez-babestuekin nahikoa izango dugu. Ebakuazio ibilideen luzera 50mkoa izan daiteke horrela, irtetzeko bi alternatiba daulelarik 25metroan. Behe oineko ebakuazio irteerak ere bi dira. Patioak kanpoaldea badira ere ez dira kontsideratuko gune seguru gisa, kaleraino irtetzeko berriz ere eraikin "barrura" sartu beharra bait dago.

### instalazioko elementuak

Instalazio elementuei dagokionez babes, kontrol eta itzaltze sistema, alarma, detekzio, argiztapena, BIE (ur aho hornituak) eta esku-itzalgailluak kokatuz garatuko da. Eredu bakoitzak elementu hauez ekipatuta egongo da, betiere indarrean dagoen araudia betez.

Egituraren materialari dagokionez Egoin® etxeko zur laminatuzko panelek suaren akzioaren aurreko erresistentzia handia dute, R60eko elementua lortzeko 49mm sobredimentsionatzea besterik ez litzateke behar.

### atondura termikoa

Proiektua Florentzian kokatzen bada ere, espainiar kode teknikoak aplikatzeko Girona aukeratu da hiri parekide gisa. Zehatzak ez badira ere biek duten klima, latitude eta kokapen geografikoa antze-koa da.

Florentzia itsaso mailatik 50mko altueran kokatzen da eta Köppen sailkapen klimatikoan Csa /mediterraneo taldean aurkitzen dugu, nahiz eta Cfa /subtropical húmedoren ezaugarri batzuk ere badituen. Espainia mailan ezaugarri antzekoak dituen hiriburua Girona izango litzateke, 70mtan eta Csa klimaz. CTE\_SB\_HE 1ari dagokionez D2 zona klimatikoari dagokio.

Horma aurre-existente sendoak ditu eraikinak, harri kalizozko 50-80zm bitartekoak. Hasierako ideia hauen inertzia termikoa aprobetxatuz eraikina girotzea izan zen, arkitektura jasangarrian hain ohikoak diren **sistema-pasibo** bidez. Hormetan sortuko litezkeen kondentsazioak ekiditeko, ordea, **arroka-ilez eta pladurraz** isolatu dira barnealdetik.

Bestalde, ahal izan den neurrian, **egur-fibrak**ko **oholez** isolatu dira gainontzeko horma berriak.

### aireztapena, klimatizazioa eta kalefakzioa

Kode teknikoak erabilera publikoarentzat aireztapena mekanikoa izatea eskatzen duenez, bide batez hauen hoditeria aprobetxatu eta sistema bateratua jartzea erabaki da. Beraz, aireztapena, klima-tizazioa eta kalefakzioa sistema berdinen bidez egingo da.

### klimatizagailuak

Airea girotzeko roof-top bidezko aire-aire sistema planteatu da eta honi atxikita, airea berotu edo hozteko bero-ponpa rebersiblea instalatuko da. Sistema bero-ponpaz, UTAz (Unidad de Tratamiento de Aire) eta banaketa sistemaz osatuta egongo da.

### gailuen kokapena

Eraikinaren geometriatik tutuek distantzia luzeak zeharkatu beharko litzukete patioak inguratzeko eta gune guztiak hornitzeko. Horregatik instalazioaren emari guztia bitan banatuko da proiektuan aurkitzen diren erabilera ezberdinak direla eta. UTA bakoitzak hornitzen duen espazioa independizatuko da, erabilera bakoitzaren beharrik hobeto asetzeko. Instalazio gelak sabai azpian kokatuko dira, kanpoaldearekin kontaktu zuzena izango dute ordea, sabaia ez baita egongo estalia, tramex bidez itxiko da.

Instalazio gela nagusian potentzia handiagoko UTA instalatuko da (Space IPF-1200 CIAT®), hiru adar izango ditu inpulsurako, bakarra estrakziorako. Azalera handiagoko higitzeak gain erabilera eta dimentsio handiagoko duten espazioak girotu behar ditu. Bigarrena apur bat txikiagoa izango da (Space IPF-840 CIAT®), hodi bana izango du bai inpulstu zein estrakziorako.

### tutueria

Sabai faltsuaren gabeziagatik girotze hodian gehiengo bistan joango da. Batez ere estetika arrazoiengatik altzairu herdoilgaitzeko hodi zirkularrak erabiltzea erabaki da. Bertikalean tutuak ezkutuan patinillo-galeria erregistragarri batetik eramango dira. Bertatik ateratzean horizontalean sabaitik agerian joango dira. Ahalik eta gutxien gurutzatzeko diseinatu da zirkuitua. Arau orokor gisa inpulstu hodiak gelen ertzetatik (fatxadatik) eramango dira eta estrakzioa, aldiz, erditik.


### saneamendua ur hustuketa eta dreinaia

Florentzian euri uren eta ur-erabilien sare bananduak dagoenez ur bilketa eta hustuketarako **sistema banandua** planteatu da.

*Ur erabiliei* dagokionez, proiektu simplea da. Gela hezeen barruan horma existenteei paraleloan eraikitako danbor-tabike batzuen barrutik eramaten dira saneamendu tutu guztiak behe oinerarte (bitartean beste solairuetako urak jasotzen direlarik). Kale kotan, arketen eta erregistro putzuen ondoren, zoru erregistragarri baten barrutik sare orokorrera lotzen dira.

*Dreinaia* planteatzeko, kontuan izan behar da proiektuaren zimenduak eta kontentzio hormak ez direla berri egiten eta beraz kanpoko lurretan ez dagoela esku-hartzerik. Aurrerantzean honek ezinezkoa egiten du iragazgaitza. Kode teknikoak DB\_HS1en diene bezala, sotoa babesteko horma ez da inpermeabilizatuko baizik eta terenoaren urari pasatzen utziko zaio, aire ganberan jaso eta ebakutzeko.

*Euri urei* dagokionez, hiru tipoko erauzteak egongo dira. Sabai inklinatuetako ura sabai magalaren amaieran kokatutako kanalo bidez kanporatuko da eta fatxadako bajante ikusietatik behe solairuko sare orokorrera lotuko da. Sabai lauetan malda-hormigoia bidez ura hustubidera bideratuko da eta bertatik bajarantera. Behe oineko patioetako ura drenai kanal linealetan bilduko da gero sare nagusira zuzenean eramateko.



### ur hotz eta ur bero sanitarioa

Kultur ekipamendua izanik, ur horniduraren eskaria nahiko baxua da. Programako gune heze bakarrak komunak, gimnasioko aldageletako dutxak eta taberna dira. Taberna txiki batez ari garenez, bertan harraska, hontzi-garbigailu eta kafeterarentzako harguneak besterik ez ditugu beharko.

Dutxengatik ez balitz ez zen beharrezkoa izango ur bero sanitariorik jartzea. Hauen erabilera oso handia ez dela izango hipotetizatu den arren, emari nahikoa jarriko zaie.

Sotoan **andela** eta **galdara** instalatuko dira horretarako. Ura sototik bonbeatuko da bertikalean, sotoaren gainean dagoen antzokitik pasako da tarima-finkoaren azpian ezkutaturik. Behin antzokiko horma pasatzean, berrizaturiko zonan, iglu bidezko Cavity® lur sanitario azpitik komunetako patinillo bertikaletara eramango da bertatik banatzeko. Azken solairuan komuna alineaturik ez badago ere, patinilloek zona bat partekatzen dute.

Sareko presioa dela eta, eta ur eskari handiena goi solairuan egoteagatik (12m kotan), **hiru ponpako sistema** bat planteatu da.

Sabaian kokatuko diren eguzki **panel termiko**en bidez lortuko da legeak **energia** baliabide **berriztagarrietatik** lortzea estimatzen duen energia kopurua.

### elektrizitatea

P' gunea osatzen duen eraikin zatiaren jabetza bakarra izango denez, elektrizitatearen aldetik instalazio bakarra izango da, eta hortaz, koadro general bakarra planteatuko da. Hemendik aurrera, azpi-koadro ezberdinak planteatu dira erabilera bakoitzerako, antzokirako, kasu, zeina auzetxea itxita dagoenean ere erabili izango den.

Elektrizitatearen hargunea lehen solairuko instalazio gelan planteatu da, bertaraino lur sanitariotik eramango da eta hemendik banatuko da erabilera guztietara. Instalakuntza gela honetan kokatuko dira bero ponparen, igogailuaren motorraren eta bi UTAREN konexioak. toma hauek nahiago izan da gainontzeko erabilereatik buruaskiak egitea eskatzen duten potentzia del eta.

Garrantzitsua da gogoratzea proiektuan ez dagoela ia sabai faltsurik eta beraz, argiztapen eta elektrizitate instalazio guztia **bistan** eramango dela. Instalazioaren balio estetikoa bilatuko da.

### argiztapena

Argiztapenari dagokionez era apal batean argiztatu nahi izan da, handikeria askorik gabe eta tipologia gutxi erabiliz, bainaaldi berean, espazio eta erabilera bakoitzak dituen argiztapen erabilerei egokitzea bilatu da. Argiztapen guztia LED lanparekin planteatu da.

Pasuzko eremuentzako eta espazio komun irekietan Eden design® etxeko Led Line 60 luminariak kokatu dira. Luminaria modular lineal bat da, beraz modelo berberaz konbinazio ugari egin ahal izango dira: linea jarrai luzea, tartekatua, paraleloan, eskegia, paretan heldua, sabaian... Pasuzko guneetan sabain helduta kokatu dira, espazio komunetan sabaian paraleloan eta argiztapen puntuala behar den lekuetan eskegia kokatu da.

Irakurketa eta lan gune itxietan luminaria puntual eskegiak kokatu dira, bonbilla eta kable hutsez osatuak zeinak hormatik zentzura eramango diren agerian, kablea zintzilik geraturik. Argiztapen maila nahikoa eta uniforme lortzeko kopuru eta posizioan jarriko dira.

